

EUSKARA. 'Bizia & Hitza' fundazioaren aurkezpenarekin abiatu da Kilometroak 2001

Mikel Arrieta | BEASAIN

Hitza definituz abiatu zuen Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetxek Euskararen komunikazioa nola landu* izenburuko hitzaldia: «Hizkuntza da gu egiten gaituen, guk bera egiten dugun bitartean. Hitzak bi planoak uztartzen ditu: fisikoa eta metafisikoa. Hitzaren bidez zubia egiten da. Tarteko elementua da».

Kilometroak 2001eko aste kulturalaren baitan egin zuen hitzaldia *Txepetxek*. Bere jarduna jarraipena izango duten lehen hiru kilometro gisa definitu zituen: lehen kilometroa motibazioarena, hitzari bizia ematea; bigarrena, ikasketa prozesua; eta hirugarrena, biziaren mugimendua nolako den goratzea.


Herri bezala Euskal Herriak eman dezakeenaz aritu zen. «Europako herri zaharrena gara, gizadiaren haurtzarora gara. Hiltzen dagoen gauzarik handiena gizadia denez, luza diezaiokegu sentimendu berri bat».

Atzoko ekitaldiak *Bizi & Hitza* Fundazioa aurkezteko balio izan zuen. *Txepetxek* berak, Iñaki Larrañagak eta Luis Anselmik osatzen dute fundazioa. «Heziketa hololinguistikoa sustatu eta, teoria horretatik abiatu, Jatorrizko Herriekin elkartruke parekiderako eredu baten diseinua egin eta esperimintatzea» du helburu fundazioak.

Iñaki Larrañagak bigarren mundua izan zuen hizpide atzo Beasaingo hitzaldian. Bigarren mundua sortu beharraz aritu zen: «Kontsumismo eta oparotasan suizidako lehen munduaren eta pobrezia, natur baliabideen ustiatze zoroa eta bazterkeria ezaugarri nagusitzat dituen hirugarren munduaren arteko amildegia deuseztera

Txepetx: «Gizadiaren haurtzarora gara, Europako herri zaharrena»

Herri bezala Euskal Herriak eman dezakeenaz aritu zen



GARI GARAIALDE
Jose Maria Sanchez Carrion, *Txepetx*, atzoko hitzaldia hasi aurretik.

dator». Elkartasunaren garrantziaz aritu zen Larrañaga: «Ez dugu gure egoera konponduko besteekin elkartasunean aritu gabe». Zentzu horretan Euskal Herriak duen erantzukizuna

aipatu zuen soziologoak: «Euskal Herria lehen munduko jatorriko herria izanik, badu hirugarren munduko jatorriko herriekin erantzukizuna. Begirunea zor diegu, errespetao...».

«Euskal Herria lehen munduko jatorriko herria izanik, badu hirugarren munduko jatorriko herriekin erantzukizuna. Begirunea zor diegu, errespetao...».

Biziaren hizkuntzaz

KILOMETROAK 2001. Sinbologiaz betetako aurkezpen ekitaldia egin zuten Beasaingo Usurbe antzokian

Ohi duen erara, txapela jantzita ekin zion aurkezpenari *Txepetxek*. Hamaikagarren mandamentuari jarraiki, asper-

garria ez izatearena, alegia, ordularia eskuan hartuta «hitzak neurtuz» ekin zion hitzaldiari.

Gaztelaniazko sintesi batekin, «erdaldunek gure artean zeregin ugari dute», amaitu zuen hitzaldia.

Ondoren etorri ziren talogilearen metafora, Calixto Suarez Kolonbiako Sierra Nevada de Santa Martako *mamo*-aren bizi-penak, Josanton Artzeren poema errezitala, Andramendi ikastolako bi gaztek euskaraz eta gaztelaniaz irakurritako ipuinak...

Biziaren hizkuntza, pentsamendu indigenista, elkartasunaren geografia, lurraren zentzu sakratua... izan zituzten hizpide.

Oholtza gainean, eskolako pupitreak, *mapa mundia*, arbela eta diaporama. *Txepetx*, Artze eta Larrañaga pupitre banatan eserita, bata besteari so. Haiekin batera Andramendi ikastolako bi ikasle, ipuina irakurri zutenak, eta gidari lanetan aritu ziren bi gazteak.

Bideo bidez entzun ahal izan ziren Kolonbiako Sierra Nevada de Santa Martako herriak pairatzen dituen miseriak, bertako emakumeek jasaten dituzten bortxaketak.

Gaur Bernardo Atxagaren txanda izango da; bihar CAFeko Andres Arizkorreta ariko da, eta etzi Pedro Migel Etxenike fisikari nafarraren txanda izango da.

ELKARTASUNA

'Fondation de France'-k elkartasun soziala lagunduko du

Eneko Bidegain | BAIONA

Fondation de France fundazioak «lotura sozialak berriz azkartzeko» ekin-tzak lagunduko ditu aurtten. Elkartasuna helburu duten elkarrekin ekimenei diru laguntzak emanen dizkiete oroz gainera. Iaz alor bereko inizatibak aitzina joateko aukera eskaini zuen, Baionan egoera ekonomiko larrian diren jende eta familientzako elkartasun neurriak babestuz, bertzeak bertze. Bernard Hanquiez fundazioaren Akitaniako delegazioko lehendakaria eta Martine Delmas Euskal Herriko ordezkaria Baionako zenbait elkarterekin bildu ziren, atzo, 2001eko nora-bideen berri emateko.

Hurbileko elkartasunari garrantzia emanen diote, adibidez, zailtasunean diren pertsonak arduren hartzera bultzatzeko ekimenei, bizileku iraunkorraren lortzea erraztu nahi dutenei, dependenteak diren adineko jendentzako langutzei eta abar. Enplegu berrien sortzeko indarrak ere sostengatuko dituzte. Hurrei buruz, eskolan hobeki bizitzeko eta bortizkeriaren baztertzeko ekimenak bultzatuko ditu *Fondation de France* k.

Prebentzioa


Osasun fundazioaren aurtengo bertze ardatz bat izanen da. Gazteei osagarriari buruz informazioaren zabaltzea eta prebentzioaren egitea helburu duten inizatibek fundazioaren laguntza jasoko dute, printzipioz. Ingurumenari dagokionez, elkarriketa bultzatu nahi duten inizatibak hautatu dituzte.

Bernard Hanquiezek esplikatu zuen ingurumenaren gaia zalaparta ainitzen iturri dela: adibidez hartzen aldekoen eta artzainen artean. Bien arteko zubiak eraikitzea baloratuko du fundazioak.

Elkarrekin txosten bat aurkeztu behar diote fundazioari, eta harek dosierri ikertu ondoren erabakiko du ekimena lagunduko ala ez.

MA | BEASAIN

Usurbe Antzokian, sinbologiaz betetako aurkezpen ekitaldia egin zuten atzo iluntzean *Bizi & Hitza* Fundazioko kideek. Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetxek* eta Iñaki Larrañagak Josanton Artze eta Beasaingo Andramendi ikastolako hainbat kide izan zituzten lagun aurkezpenean.



Enpresaburuok,

Prestakuntza zergak gazteei trebatzen laguntzen die gaur, bihar lana aurkitu dezaten.

Zuen merkataritza peritosa, Baionako Merkataritza eta Industria Ganbera (CCI Bayonne Pays Basque), zuen esanetara dago behar duzuen informazioa eman eta betebeharreran laguntzeko.

Ez izan zalantzarik! Dei ezazue orain prestakuntza zerbitzura, 05 59 46 59 56 telefono zenbakira.